



BALOREZKO PROPOSAMENA

Canvas ereduaren arabera, balorezko proposamena da bezeroek gure enpresaren, eta ez beste baten, alde egiteko arrazoi nagusia. Izan ere, gure bezeroek bertan aurkitu beharko baitute bilatzen duten zerbitzua.

Gure kasuan, gure enpresaren ezaugarri nagusia, abenturazko parkea, ibiltaria izatearen ideia da. Abenturazko enpresak estatikoak izaten dira, gurea aldiz, berrikuntza gisa, ibiltaria eta moldagarria da. Elementu honek beste enpresetatik bereizten gaituenez, **nobedadea** dela esan daiteke.

Eskuragarritasuna ere bezeroentzat balorea sortzen duen beste elementuetako bat da. Azken batean, ez da bezeroa parkea dagoen herrira joaten arduratu behar dena, baizik eta parkea da bezeroarengana hurbilduko dena. Honen ondorio da parkera iristeko erraztasuna egotea, hau da eskuragarria izatea.